



HIRIGINTZA SAILEKO BURU LANPOSTUA
AZTERKETAZKO LEHIAKETA IREKIKO
SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO
DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

LEHENA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Honako deialdi honen xedea da jabetzan betetzea, azterketazko lehiaketa irekiko sistemaren bitartez, Hirigintza Saileko Buru lanpostua, Administrazio Bereziko Eskalakoa, Teknikarien Azpieskalakoa, Goi Mailako Teknikarien Klasekoa eta A/A1 taldean sailkatua, Lasarte-Oriako Udaleko pertsonal funtzionarioaren taulan betetzeke aurkitzen dena aurreko titularrak erretiroa hartu duelako. Lanpostua Hirigintzako arloan integratuko da eta eginkizun nagusiak 2. oinarrian listatzen direnak izango ditu.

Deialdiko lanpostuak Lasarte-Oriako Udaleko Pertsonalaren Laneko Kondizioen Marko Arautzailearen eranskin gisa ageri den Ordainsarien Taulako 28. maila du esleitua, gehi Dedikazio Bereziko Tarteko %20ko Berariazko Osagarria, eta derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkotasun-data 2015eko urtarrilaren 1. egunean duena.

Plazaren dedikazio-erregimena lanaldi hedatukoa eta erabateko baliagarritasunekoa da. Lanaldia Udalak urtean-urtean finkatzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak aintzat harturik.

Azterketen faseko ariketa kanporatzaileak gainditu dituzten hautagaiek deialdiko plazen kopurua gainditzeko badute, soberakoen lista erabili ahalko da lanpostu berdinetan edo antzekoetan enplegatuko ez finkoen beharrak betetzeko.

Hautagaiei eskatzen zaizkien datu pertsonalak fitxategi batera pasako dira, eta tratamendu automatizatua emango zaie hautatze-prozesua kudeatu ahal izateko; fitxategiari indarrean dagoen izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legeria aplikatuko zaio. Ondorioz, hautagaiek datuak eskuratzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko eta zuzentzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean. Era berean, identifikazioko datuak eta hizkuntza-eskakizunaren akreditaziokoak HAEE-IVAPi pasatuko zaizkio, beharrezko konprobazioak egiteko edota, kasua hala bada, azterketen faseko laugarren ariketa prestatzeko eta egiteko. Azkenik, hautagai interesatuek horretarako baimena espresuki emanaz gero (hala adieraziko dute eskaera-orian), eskatzen dituzten administrazio publikoei pasatu ahalko zaizkie Azterketen Faseko gainditu beharreko ariketak gainditzeko dituzten datuak, betiere haien helburua antzeko premiei erantzutea bada.



BIGARRENA.- FUNTZIOAK.

Deialdiaren xedeko lanpostuaren funtzioak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Hirigintzaren arloko baliakizun tekniko eta pertsonalak zuzentzea.
- Hirigintzako eta Zerbitzu Munizipaletako arloen jarduera koordinatzea.
- Hirigintzaren arloak berezko dituen gaietan (obrak, hirigintza, kontratazioa eta ondarea) aholku ematea eta gai horiek juridikoki eta administratiboki tramitatzea.
- Hirigintzako Departamentuarekin zerikusia duten alkatetzako ebazpenak gainbegiratzea, bai halaber Hirigintza, Obrak eta Ingurumena batzorde informatiboaren aktak.
- Dokumentuen sarrera-erregistroa aztertzea, kontrolatzea eta banatzea, bisitak eta telefonoa hartzea, eta publikoa Hirigintzako gaiez informatzea.
- Hirigintzaren plangintzari eta haren gauzatzeari buruzko espedienteak eta gaiak tramitatzea. Hirigintzaren plangintzarekin zerikusia duen ondarearen kudeaketa tramitatzea.
- Obrak kontratatzeko eta eraukitzeko eta zerbitzuak kudeatzeko klausula administratiboan eta preskripzio juridiko-ekonomikoen baldintza-agiriak idaztea, bai eta dagozkien espedienteen tramitazioaz arduratzea ere. Zertifikazioak kontrolatzea eta obrei harrera ematea.
- Hirigintzako arau-hausteei eta aurri-deklarazioei buruz irizpena ematea.
- Txosten juridikoak egitea.
- Hirigintza, Obrak eta Ingurumena batzorde informatiboaren gai-zerrenda idaztea, bilerara joatea eta aholku ematea, bai halaber Udalbatzarrean eta Gobernu-Batzarrean tratatu beharreko gaien igorpena eta harrera gainbegiratzea. Hartutako erabakiak betetzearen jarraipena egitea.
- Hirigintza-hitzarmenak idaztea.
- Udaleko beste departamentuekin koordinatzea.
- Hirigintzaren arloko aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea eta haren gauzatzea gainbegiratzea. Egin beharreko jarduketan irizpideak eta lehentasunak finkatzea.
- Obra handi eta txikien lizentzien eta jardueretako jarraipena egitea. Ingurumenaren arloaren eskumeneko espedienteak tramitatzea.
- Bere kategoriaren berezkoak izanik enkargatzen eta errekeritzen zaizkion eginkizunak egitea, lanpostuaren izaeraren arabera.



HIRUGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK eta ESKAKIZUNAK.

Azterketazko lehiaketa honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onesten duen 5/2015 Errege-Dekretu Legegintzazko urriaren 30ekoak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber hartu ahalko dute parte espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, haien dependentziadunak badira.

- b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Zuzenbideko Lizentziaturaren edo dagokion Gradu tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordaindurik edukitzea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Zertzelada hori dagokion unean egiaztatu beharko du hautagai proposatuak.
- e) Auzibide diziplinario bidez zerbitzutik apartatua ez egotea, Administrazio Publikoei edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren bidez gaitasungabetze erabatekoan edo berezian ez aurkitzea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ez eta, lan-kontratuko enplegatuen kasuan, zerbitzutik apartatu edo gaitasungabetu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, gaitasungabetua edo horren pareko egoera batean ez aurkitzea, eta bere estatuan egoera berean egonda



enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen santzio diziplinariarik edo horren parekorik jaso ez izatea.

- f) Funtzionario publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legezko xedapenek ezarritako baldintzetan.

LAUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Hautaprosesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori oinarri hauei erantsirik doa, I. Eranskin gisa. Lasarte-Oriako Udaletxeko Erregistro Orokorrean egongo da eskuragai, 9.00etatik 13.30etara bitartean, astelehenetik ostiralera, eta halaber eskuratu ahalko da Udalaren web gunean (www.lasarte-oria.eus).

Onartua izateko eskabideak Lasarte-Oriako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

- a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.
- b) Gainera, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- DNIaren fotokopia, edo identitatea eta nazionalitatea akreditatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
 - Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
 - Kasua hala bada, 4. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo deialdiko 7. oinarrian aipatzen diren euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia konpultsatua.
 - Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko. Dokumentu horiek, nahitaez, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira. Ez dira ebaluagai izango eskabidean alegatzen ez diren merezimenduak edota



eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin akreditatzen ez direnak.

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez akreditatu beharko dira. Administrazio publikoetan edo enpresa pribatuan horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira, eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enpleguko erlazioaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak. Lasarte-Oriako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez akreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

- c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute azterketen faseko ariketak Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Lasarte-Oriako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, honako oinarri hauek Udalaren web gunean (www.lasarte-oria.eus) edo, lehenago ateraz gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzen diren egunaren hurrengotik aurrera eta gehienez ere hogeita (20) egun naturaleko epean, deialdiaren iragarpena Estatuko Buletin Ofizialean publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Eskabideak orobat aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Lege urriaren 1ekoak 16.4. artikuluan adierazitako formetarik edozeinetan ere. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak datatu eta zigitatu beharko ditu, eskabideak aurkezteko epearen barruan; horrela bakarrik kontsideratuko da eskabideek erreferentziazko posta-bulegoetan edo erregistroetan entregatu zireneko egunean izan dutela sarrera Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean.

Egitezko errakuntzarik hautematen bada edozein unetan zuzendu ahalko da, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo horiek akreditatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenaz esango dena.



BOSGARRENA.- HAUTAGAIEN ONARPENA.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate presidenteak hautagai onartuen eta baztertuen lista probisional onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak. Lista Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Lasarte-Oriako Udalaren web guneko (www.lasarte-oria.eus) iragarpenen taulan jarriko da ikusgai.

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Lege urriaren 1ekoak 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako lista behin-behineko horretan kanporatutzat ageri diren hautagaiei hamar (10) egun baliioduneko epea emango zaie, lista hori aipatutako Aldizkari Ofizialean publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, baztertua gertatzea kausatu duten errakuntzak edo omisioak zuzentzeko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko lista automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko lista, zein gorago adierazitako moduan argitaratuko baita.

Ebazpen horren kontra, errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri ahalko da Donostiako Kontentzioso-Administratiboetako Epaitegian, onartuen eta kanporatuen behin betiko lista Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epearen barruan. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahalko da, hilabeteko epean.

SEIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrez eta ordezkoez osatua egongo da, eta haien izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara eta Lasarte-Oriako Udalaren web guneko (www.lasarte-oria.eus) iragarpenen taulan jarriko da ikusgai. Epaimahaia honela eratua geratuko da:

Presidenteak:

- Lasarte-Oriako Udaleko funtzionario bat.

Bokalak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat.



- Beste Udal bateko Hirigintza Saileko teknikari-buru bat.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.
- Deialdian beharrezkotzat eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak ebaluatzeko eta horretarako bakarrik, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Lege uztailaren 6koak 99.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.

Idazkaria:

- Lasarte-Oriako Udaleko funtzionario bat.

Probetan, Epaimahai Kalifikatzaileak bidezko baderitzo, aholkulari adituen lankidetzara eska dezake dena delako gaietarako.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek uko egin beharko diote esku hartzeari eta, kasu horretan, alkate presidenteari horren berri eman beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Lege urriaren 1ekoak 23. artikuluan jasotako zirkunstantzietakoren bat gertatzen bada haiengan. Era berean, hautagaiek errefusatu ahalko dituzte epaimahaikideek, Lege bereko 24. artikulua araberaren arabera.

Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideek profesionaltasun eta inpartzialtasun printzipioak beteko dituzte. Hala ere, eta horrek espezialitate printzipioaren gainean eraginik ez badu, Epaimahai Kalifikatzailearen osaerak orekatua izan behar du gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokiak dituzten emakumeen eta gizonen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahai Kalifikatzailearen jardunbidea beti jarraikiko zaio Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Lege urriaren 1ekoan organo kolegiatuei buruz jasotzen diren xedapenei.

Epaimahai Kalifikatzailea ezingo da ez eratu, ez aritu, baldin eta kide titularren edo ordezkoren erdiak baino gehiago bertan bildu ez badira, eta, edozein kasutan ere, presente egon behar dute presidenteak eta idazkariak. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, hango idazkariak izan ezik, hark ez baitu azken ahalmen hori izango. Erabakiak hartzeko bildutako botoen gehiengoa beharko da; berdinketa gertatuz gero, berriz, presidente diharduenaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Presidentearen eta haren ordezkoren bakantzia, absentzia, eritasuna edo beste edozein kausa legal gertatuz gero, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzeko



duen bokalak hartuko du presidentetza bere gain, eta hura absente izanez gero, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duen bokalak. Idazkariaren eta haren ordezkorekin bakantzia, absentzia, eritasuna edo hari eragiten dion beste kausa legalen bat gertatuz gero, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta azterketazko lehiaketa honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaprosesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

ZAZPIGARRENA.- AZTERKETEN FASEA.

Lehen ariketaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lasarte-Oriako Udalaren web guneko (www.lasarte-oria.eus) iragarpenen taulan emango da argitara, eta deialdian adieraziko da zein egun eta ordutan hasiko den eta zein lekutan egingo den. Hurrengo ariketak aditzera emateko egokiena deritzon moduan iragarriko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak.

Hautagai guztiek batera egin ezin dituzten ariketetan esku hartzeko ordena zozketa bidez egiaztatuko da, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azterketen fasean, ondoko ariketa hauek egingo dira:

- **LEHEN ARIKETA: TEORIKOA.** Egin beharrekoa eta gainditu beharrekoa hautagai guztientzat.

Oinarri hauen II. Eranskinean ageri den Gai Komunen programaren edukiarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen denboran.

Epaimahai Kalifikatzailearen irizpidearen baitan geratzen da ariketa hau egitean zein prozedurari jarraitu finkatzea (test moduko galdera-sorta, gai bat



edo batzuk garatzea, etab.), eta, kasua hala bada, gaizki erantzundako galderak nola penalizatu zehaztea.

Lehen ariketa honi hamar (10) puntu emango zaizkio gehienez, eta bost (5) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.

- BIGARREN ARIKETA: Egin beharrekoa eta gainditu beharrekoa hautagai guztientzat.

Bi atal izango ditu, bata teorikoa eta bestea izaera praktikokoa, eta biak gainditu beharko dira.

a) ATAL TEORIKOA: Oinarri hauen III. Eranskinean ageri den Gai Espezifikoen programaren edukiarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen denboran.

Epaimahai Kalifikatzailearen irizpidearen baitan geratzen da ariketa hau egitean zein prozedurari jarraitu finkatzea (test moduko galdera-sorta, gai bat edo batzuk garatzea, etab.), eta, kasua hala bada, gaizki erantzundako galderak nola penalizatu zehaztea.

Bigarren ariketako lehen atal honi hogeita hamar (30) puntu emango zaizkio gehienez, eta hamabost (15) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.

b) ATAL PRAKTIKOA: Epaimahai Kalifikatzaileak determinatzen dituen suposizio edo kasu praktikoak ebatzi beharko dira. Oinarri hauen III. Eranskinean ageri den Gai Espezifikoen programako edukiarekin edo lanpostuaren berezko funtzioekin zerikusia dutenak izango dira.

Bigarren ariketako bigarren atal honi hogeita hamar (30) puntu emango zaizkio gehienez, eta hamabost (15) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.

- HIRUGARREN ARIKETA: LANPOSTUAREN PROFILARI EGOKITZEARI BURUZKO PROBA. Egin beharrekoa eta gainditu beharrekoa hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerakoari eta bete beharreko funtzioei nola egokitzen zaizkien ebaluatza bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da, elkarriketarekin batera.

Hirugarren ariketa honi hamar (10) puntu emango zaizkio gehienez, eta bost (5) puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko.



- LAUGARREN ARIKETA: EUSKARAKO 4. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO PROBAK. Egin beharrekoa eta gainditu beharrekoa hautagai guztientzat.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba idatziak eta ahozkoak egingo dira, eta ariketa honen kalifikazioa "Gai da" edo "Ez da gai" izango da.

Proba hau egitetik salbuetsiak geratzen dira eskatutako hizkuntza-eskakizuna badaukatela egiaztatzen duten hautagaiak. Horretarako, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeak den 297/2010 Dekretu azaroaren 9koak 3.4. artikuluan ezarritako medioetako edozein bali dezakete, eta horretarako konbalidatuak geratzen dira bertan aipatzen diren euskarako ziurtagiri eta tituluak. Era berean, hori akreditatu beharretik salbuetsiak geratuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeari eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeetik salbuesteari buruzko 47/2012 Dekretu apirilaren 3koan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Horretarako, hautagaiek zertzelada hori espresuki alegatua izango dute onartua izateko eskabidean eta hari erantsia dagokion titulua edo ziurtagiria.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak HAEEK horretarako seinalatutako tokian egingo dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiari gertatzen zaizkiokeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak, etab. beraren kontura izango dira.

ZORTZIGARRENA.- AZTERKETEN FASEAREN JARDUNBIDEA.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal dezake ariketak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz bestela egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Baldin eta hautagairen bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren, hautaprozesutik kanpo geratuko da erabat.

Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Lasarte-Oriako Udalaren web guneko (www.lasarte-oria.eus) iragarpenen taulan publikatuko du ariketa gainditu duten hautagaien lista.



Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna berma dadin, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezzen.

BEDERATZIGARRENA.- MEREZIMENDUEN FASEA.

Azterketen fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira, zeinetan Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko baititu, baldin eta 4. oinarriko b) letran xedaturikoaren arabera behar bezala akreditatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuz:

a) EGINDAKO ZERBITZUAK:

Administrazio publikoan Hirigintza Saileko Buru lanpostuak betez egindako zerbitzuak baloratu egingo dira, deialdiko lanpostuaren funtzio berak egin baditu: gehienez ere hamabost (15) punturekin kalifikatuko dira, zerbitzuko hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Baldin eta dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Era berean, baloratu egingo dira administrazio publikoan beste lanpostu batzuetan egindako zerbitzuak, baldin eta lanpostu horiek betetzeko Zuzenbideko Lizentziatura/Gradua eskatzen bada eta horietan egiten diren funtzioak deialdiko lanpostukoaren antzekoak badira: gehienez ere bost (5) punturekin kalifikatuko dira, zerbitzuko hilabete oso bakoitzeko 0,05 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Baldin eta dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Azkenik, baloratu egingo dira bai administrazio publikoan bai enpresa pribatuan buruzagitzan jardutea daramaten beste lanpostu batzuetan egindako zerbitzuak, baliakizun pertsonalak zuzentzen eta koordinatzen: gehienez ere hamar (10) punturekin kalifikatuko dira, zerbitzuko hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Baldin eta dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Ondorio horietarako, zuzeneko erlazioaren bidez eta zuzenbide administratiboaren edo zuzenbide laboralaren erregimenean eginak joko dira administrazio publikoan egindako zerbitzutzat. Ez dira ebaluagai izango, Euskadiko Funtzio Publikoaren 6/1989 Lege uztailaren 6koak 96.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.



b) **BESTE TITULAZIO BATZUK EDUKITZEA:**

HAEE-IVAPek antolatutako Hirigintzako Ikastaroa edo Hirigintzako beste master ofizial batzuk osorik egin izana baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntu arte esleituz.

HAMARGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, azterketen fasean eta merezimenduen fasean lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek determinatuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkera.

Berdinketarik gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, ezarritako hurrenkeran aplikatuz:

- a) Bigarren ariketako bi ataletan puntu-batura handiagoa ateratzea.
- b) Berdinketa gertatuz gero, hirugarren ariketan puntu-batura handiagoa ateratzea.

Oraindik ere berdinketa egongo balitz, lehentasuna emango zaie emakumeei, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Lasarte-Oriako Udalaren web guneko (www.lasarte-oria.eus) iragarpenen taulan emango ditu argitara azterketazko lehiaketa gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienekotik gutxienekora ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen izendatzeko proposamena egingo du.

Baldin eta, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxienezko kondizioak betetzen dituenik, erabaki ahalko du esleitu gabe uztea.

Epaimahai Kalifikatzaileak, ezein kasutan ere, ez ditu deialdian iragarritako plazak baino hautagai gehiago proposatuko. Hala ere, Lasarte-Oriako Udaleko pertsonalean gerta daitezkeen hutsuneak aldi batez bete ahal izateko, izaera kanporatzaileko ariketak gainditu dituzten hautagaien lista erantsi beharko dio proposamenari, lortutako puntuen arabera ordenatua.

Epaimahai Kalifikatzaileak Lasarte-Oriako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko dio akta, behar den izendapena egin dezan.



Hautagai proposatuak probak gainditu dituzten hautagaien lista argitara ematen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta hogeita (20) egun naturaleko epean ekarri beharko ditu hautaprosesuan parte hartzeko beharrezkotzat eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiri jatorrizkoak.

Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan gabe, hautagai proposatuak agiriak aurkezten ez baditu edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituela akreditatzen ez badu, ezingo da izendatua izan eta haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Ondorioz, karrerako funtzionario izendatua izateko dituzkeen eskubide guztiak galduko ditu, alde batera utzi gabe hasierako eskabidean gezurra jartzeagatik legokiokeen erantzukizuna.

Kasu horretan, azterketazko lehiaketa gainditu dutenen artetik, puntu-kopuru finalaren ordenan hurrengo lekua betetzen duena izendatzeko proposamena formulatuko da. Hori baino lehen, beharrezkotzat eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

Modu berean jardungo da baldin eta praktiketako funtzionario izendaturiko hautagaiak praktiketako eta formazioko periodoa gainditzen ez badu.

HAMAIKAGARRENA.- PRAKTIKETAKO ETA FORMAZIOKO PERIODOA, ETA IZENDAPENA.

Organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko hautagaia, betiere aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu dituenean. Praktiketako eta formazioko periodoaren iraupena sei (6) hilabetekoa izango da. Denbora horretan efektiboki burutu beharko ditu eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Denboraldi hori amaitu aurretik, probaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo du gainera daukan hurrengo buruak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientziaren zentzua, lanerako prestasuna eta iniziatiba, eta lanaren alderaketat agertutako interesa; laneko ekipoan integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Hautagaiak praktiketako eta formazioko periodoa gainditzen badu, karrerako funtzionario izendatua izango da, eta izendapena notifikatzen zaionetik kontatzen hasi eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epean jabetu beharko da karguaz. Horrela egin ezean, eskubide guztiak galduko ditu eta erabakitako izendapena indarririk gabe geratuko da; ondorioz, puntu-kopuru



finalaren ordenan hurrengo lekua betetzen duena praktiketako funtzionario izendatzeari ekingo zaio, betiere 3. oinarrian beharrezkotzat eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

HAMABIGARRENA.- INTZIDENTZIAK.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta azterketazko lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.


HAMAHIRUGARRENA.- INPUGNAZIOAK.

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahalko dira, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

Lasarte-Orian, 2017ko apirilaren 11n

Jarduneko Alkateak,

Stua: M^a Lourdes Acevedo Beldarrain



NOIZ SARTUA FECHA INGRESO	NOIZ UTZIA FECHA CESE	ADMINISTRAZIOAREN edo ENPRESAREN izena Nombre de la ADMINISTRACIÓN o la EMPRESA	BETETAKO LANPOSTUA PUESTO de TRABAJO OCUPADO

5. FORMAZIOA / FORMACIÓN

Hautagaiak idatziz adierazten dituen datuak, merezimenduak kalifikatzeko (bestelako tituluak, ikastaroak, mintegiak, diplomak...)

Datos que el aspirante hace constar para la valoración de méritos (otros títulos, cursos, seminarios, diplomas...)

TITULUA edo KURTSOA TÍTULO o CURSO	ZEIN ZENTROK eta HERRITAN EMANA CENTRO y LOCALIDAD de EXPEDICION	NOIZ LORTUA FECHA de OBTENCIÓN

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK / DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD:

- DNIaren fotokopia / Fotocopia del D.N.I.
- Gidatzeko baimenaren fotokopia / Fotocopia del carnet de conducir.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskaturiko tituluaren fotokopia / Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Hizkuntzako Eskakizunaren egiaztagiraren fotokopia (edo titulu baliokidearena) / Fotocopia del certificado del Perfil Lingüístico (o del título equivalente).

Behean sinatzen duen honek **ESKATZEN DU** onartua izan dadila eskabide honetan adierazitako hautaprotetan, eta **BAIEZTATZEN DU** egiazkoak direla hemen adierazten dituen datuak eta betetzen dituela deialdiko Oinarrietan eskaturiko baldintzak eta eskakizunak. Horretarako, hitz ematen du jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dituela eskatzen dizkiotenean.

El abajo firmante **SOLICITA** ser admitido a las pruebas selectivas a las que se refiere la presente instancia y **DECLARA** que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones y los requisitos exigidos en las Bases de la convocatoria, comprometiéndose a acreditarlos fehacientemente en el momento en el que le sean requeridos.

Data / Fecha _____

Sinadura / Firma

LASARTE-ORIA UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEA.
SR. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.

Lasarte-Oriako Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatua emateko, konpromisoa hartzen duelarik Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 13/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko. Interesatuak datuak eskuratzeko, kartzelatzeko, zuzentzeko eta oposatzeko eskubideak baliatu ahaliko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria queda autorizado al tratamiento de los datos personales contenidos en este documento, comprometiéndose al cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 13/1999, sobre Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.



II. ERANSKINA

GAI KOMUNEN PROGRAMA

- 1. gaia.** Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak, haien bermeak eta suspentsioa. Erreforma konstituzionala.
- 2. gaia.** Gorte Nagusiak: antolamendua, atribuzioak eta funtzionamendua. Legeak egitea. Nazioarteko itunak.
- 3. gaia.** Gobernua: osaketa, izendapena, iraupena eta erantzukizuna. Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko erlazioak.
- 4. gaia.** Botere Judiziala Espainiako Konstituzioan. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Auzitegi Gorena. Ministerio Fiskala. Auzitegi Konstituzionala: osaera eta eskumenak. Errekurtsoak jartzeko legitimazioa.
- 5. gaia.** Estatuaren lurralde-antolamendua: printzipio orokorrak. Administrazio lokala. Komunitate autonomoak: eraketa eta eskumenak.
- 6. gaia.** Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa. Euskadiko administrazio publikoen eta botereen jardueran generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak.
- 7. gaia.** Europar Batasuna: erakundeak. Zuzenbide komunitarioa. Fondo estrukturalak.
- 8. gaia.** Euskadiren Autonomiako Estatutua: eduki orokorrak. Euskadiko Komunitate Autonomoaren eskumenak.
- 9. gaia.** Euskadiren Autonomiako Estatutua. Euskadiko Komunitate Autonomoko botereak: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.
- 10. gaia.** Euskal Herriko Lurralde Historikoak. Lurralde Historikoetako gobernuko eta administrazioko organoak. Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.



- 11. gaia.** Espainiako erregimen lokala: printzipio konstituzionalak eta gaur egungo erregulazioa. Autonomia lokala. Udalerria: kontzeptua, elementuak eta eskumenak. Udalen antolamenduko oinarrizko organoak: Alkatea, alkateordeak, Udalbatzarra eta Gobernu-Batzar Lokala.
- 12. gaia.** Zuzenbide Administratiboaren iturriak. Iturrien hierarkia. Konstituzioa. Legea. Botere exekutiboaren xedapen lege-indardunak. Erregelamendua: kontzeptua, motak eta mugak.
- 13. gaia.** Administrazioaren xedapenak eta egintzak: kontzeptua eta motak. Egintza administratiboaren eskakizunak, efikazia eta baliozkotasuna, haien motibazioa. Notifikazioa eta publikazioa.
- 14. gaia.** Prozedura administratiboa: xedapen orokorrak. Prozedura administratiboa abiatzearen, ordenatzearen, instruitzearen, bukatzearen eta exekutitzearen gaineko nozio orokorrak.
- 15. gaia.** Bide administratiboko egintzen errebisioa. Errekurtso administratiboak: printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekurtsua, berraztertzeko errekurtsu aukerakoa eta berrikusteko errekurtsu berezia.
- 16. gaia.** Administrazio Publikoen erantzukizuna.
- 17. gaia.** Funtzio publiko lokala: Administrazio lokaleko funtzionario-motak. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Entitate lokaletako enplegatu publikoen ordainsariak. Administrazio lokaleko funtzionarioen hautaketa eta hornikuntza. Administrazio lokaleko funtzionarioen erregimen diziplinarioa.
- 18. gaia.** Administrazio publikoen ogasuna. Baliakizunen banaketa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa.




III. ERANSKINA

GAI ESPEZIFIKOEN PROGRAMA

- 19. gaia.** Hirigintzaren bilakaera historikoa. Lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumenak nola banatzen diren lurralde-administrazioen artean. Organo eskumendunak.
- 20. gaia.** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa. Lurralde-antolamendurako tresnak. Lurraldearen antolamendua kontrolatzeko jarduketa publikoak.
- 21. gaia.** 28/1997 dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena.
- 22. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Xedapen eta printzipio orokorrak.
- 23. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta erregimena. Lurzoruaren jabetzaren erregimena.
- 24. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Hirigintzaren antolamendua eta plangintza. Zenbatekoak eta estandarrak.
- 25. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Hirigintzaren antolamendua eta plangintza. Plangintzaren eta hirigintza antolatzeko gainerako tresnen tramitazioa eta onespena.
- 26. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Administrazioak lurzoruaren merkatuan esku hartzea. Lurzoru-ondare publikoak. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak. Lurrazaleko eskubideak.
- 27. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Hirigintzaren antolamendua gauzatzea. Urbanizatzeko jarduketa-programak eta jarduketa-sistemak.
- 28. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Hirigintzako antolamendua bermatzea eta babestea. Hirigintzako lizentziak.



- 29. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Hirigintzako antolamendua bermatzea eta babestea. Kontserbatzeko betebeharra: gauzatzeko aginduak eta aurri-egoeraren deklarazioa. Hirigintzako arau-hausteak eta zehapenak: definizioa, tipifikazioa eta preskripzioa; subjektu erantzukizundunak, erantzukizunaren graduazioa eta santzioen zenbatekoa zehazteko arauak; eskumena eta prozedura.
- 30. gaia.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa. Xedapen gehigarriak eta iragankorrak. Beste bizileku bat ematea. Hirigintzako hitzarmenak. Babes publikoko etxebizitzak.
- 31. gaia.** 105/2008 dekretua, ekainaren 3koa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Lege ekainaren 30ekoa garatzeko premiazko neurriena.
- 32. gaia.** Uztailaren 3ko 123/2012 dekretua, hirigintzako estandarrena.
- 33. gaia.** 7/2015 errege-dekretu legegintzazkoa, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Errehabilitazio Urbanoaren Legearen Testu Bateratua onesten duena. Herritarrek konstituzioko eskubide eta eginbeharretan duten berdintasunaren oinarriko baldintzak: estatutuak. Lurzoruaren erregimenaren oinarriak, prozedurazko arau komunak eta arau zibilak.
- 34. gaia.** 7/2015 errege-dekretu legegintzazkoa, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Errehabilitazio Urbanoaren Legearen Testu Bateratua onesten duena. Eraikinen ebaluazio-txostena. Administrazioen arteko elkarlana eta lankidetzak.
- 35. gaia.** 7/2015 errege-dekretu legegintzazkoa, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Errehabilitazio Urbanoaren Legearen Testu Bateratua onesten duena. Balorazioak. Nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna. Jabetzaren funtzio soziala eta lurzorua kudeaketa.
- 36. gaia.** 2.159/1978 errege-dekretua, ekainaren 23koa, Lurraren Erregimenari eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen garapen eta aplikaziorako Plangintzako Erregelamendua onesten duena.
- 37. gaia.** 3.288/1978 errege-dekretua, abuztuaren 25ekoa, Lurraren Erregimenari eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen garapen eta aplikaziorako Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamendua onesten duena.
- 38. gaia.** 2.187/1978 errege-dekretua, ekainaren 23koa, Lurraren Erregimenari eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen garapen eta aplikaziorako Hirigintzako Diziplinaren Erregelamendua onesten duena.



- 39. gaia.** 1.492/2011 errege-dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onesten duena.
- 40. gaia.** Lasarte-Oriako Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateratua (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2005eko apirilaren 1eko eta 4ko 60. eta 61. zenbakietan argitaratua).
- 41. gaia.** 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 42. gaia.** 1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa. Printzipio orokorrak. Prozedura orokorra.
- 43. gaia.** 1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa. Prozedura bereziak.
- 44. gaia.** 1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa. Aldi baterako okupazioaren kalte-ordaina eta beste kalte batzuen. Berme juridikzionalak.
- 45. gaia.** Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa. Xedapen orokorrak. Ingurumen-baliabideen babesa.
- 46. gaia.** Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua: jarduera sailkatuak, hondakinak eta lurzoru kutsatuak.
- 47. gaia.** Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa. Ingurumeneko diziplina. Santzionatzeko erregimena.
- 48. gaia.** 1/2006 foru-dekretu arauemailea, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru-Arauaren Testu Bateratua onesten duena.
- 49. gaia.** Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta Erregimen Lokaleko alorrean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onesten duen 781/1986 errege-dekretu legegintzazkoa, apirilaren 18koa. Entitate lokalen funtzionamenduaren erregimena. Administrazioen arteko harremanak.



- 50. gaia.** Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta Erregimen Lokaleko alorrean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onesten duen 781/1986 errege-dekretu legegintzazkoa, apirilaren 18koa. Egintzak eta erabakiak inpugnatzea, eta akzioak baliatzea. Herritarrek informazioa eskuratzea eta parte hartzea. Korporazio Lokaletako kideen estatutua.
- 51. gaia.** Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta Erregimen Lokaleko alorrean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onesten duen 781/1986 errege-dekretu legegintzazkoa, apirilaren 18koa. Ondasunak, jarduerak eta zerbitzuak, eta kontratazioa.
- 52. gaia.** Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta Erregimen Lokaleko alorrean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onesten duen 781/1986 errege-dekretu legegintzazkoa, apirilaren 18koa. Entitate lokalen zerbitzurako enplegatuak.
- 53. gaia.** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa. Legearen xedea eta printzipioak. Udalerria eta gainerako euskal toki erakundeak. Udal-eskumenak. Udalerriaren antolaketa eta funtzionamendua.
- 54. gaia.** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa. Udalerriko auzotarren betebeharrak eta eskubideak. Zerbitzu kartak.
- 55. gaia.** 1.372/1986 errege-dekretua, ekainaren 13koa, Entitate Lokalen Ondasunen Erregelamendua onesten duena. Ondasunen kontzeptua eta sailkapena. Ondasunen kontserbazioa eta babesa.
- 56. gaia.** 1.372/1986 errege-dekretua, ekainaren 13koa, Entitate Lokalen Ondasunen Erregelamendua onesten duena. Ondasunen gozamina eta aprobetxamendua. Besterentzea. Bide administratiboan etxea utzaraztea.
- 57. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Xedapen orokorrak. Sektore publikoko kontratuak.
- 58. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak. Xedapen orokorrak. Kontratuko alderdiak: enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena.



- 59. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak. Kontratuaren xedea, prezioa eta zenbatekoa. Sektore publikoko kontratuetan eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.
- 60. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Kontratuak prestatzea.
- 61. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Kontratista hautatzea eta kontratuak adjudikatzea.
- 62. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Kontratu administratiboen ondorioak, betetzea eta azkentzea: arau orokorrak.
- 63. gaia.** 3/2011 errege-dekretu legegintzazkoa, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena. Kontratu administratiboen ondorioak, betetzea eta azkentzea: kontratu-mota ezberdinetarako arau bereziak.
- 64. gaia.** 1.098/2001 errege-dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- 65. gaia.** 1955eko ekainaren 17ko dekretua, Korporazio Lokalen Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena. Xedapen orokorrak. Zerbitzuak kudeatzeko moduak: zuzeneko kudeaketa eta zeharko kudeaketa.
- 66. gaia.** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Prozeduran interesatuak. Administrazio publikoen jarduera: jarduteko arau orokorrak, terminoak eta epeak.
- 67. gaia.** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzkoa. Egintza administratiboak: bete beharreko baldintzak, eraginkortasuna, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.



- 68. gaia.** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzkoa. Prozedura administratibo komunari buruzko xedapenak: prozeduraren bermeak, faseak eta tramitazio sinplifikatua.
- 69. gaia.** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzkoa. Egintzak bide administratiboan berrikustea: ofizioz berrikustea eta errekurtsio administratiboak. Legegintzako ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahalmena.
- 70. gaia.** 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarena. Administrazio publikoaren organoak. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa. Hitzarmenak.
- 71. gaia.** 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarena. Administrazioen arteko harremanak: printzipio orokorrak, administrazioen artean kolaboratzeko betebeharra, kooperazioko harremanak eta harreman elektronikoak.
- 72. gaia.** 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Aplikazio-eremu subjektiboa. Publizitate aktiboa. Informazio publikora iristeko eskubidea.
- 73. gaia.** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa. Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea.
- 74. gaia.** 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarena. Santzionatzeko ahalmenaren printzipioak.
- 75. gaia.** 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.
- 76. gaia.** 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionario-izaera eskuratzea eta galtzea. Funtzionarioaren eskubideak eta betebeharrak. Egoera administratiboak.
- 77. gaia.** 5/2015 errege-dekretu legegintzazkoa, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onesten duena. Administrazio publikoen zerbitzurako pertsonala. Eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide-kodea. Egoera administratiboak.



- 78. gaia.** 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. Eskubideak eta betebeharrak. Erantzukizuna eta santzioak.
- 79. gaia.** 21/2003 foru-araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko entitate lokalen aurrekontuei buruzkoa. Aurrekontu orokorrak: definizioa, balio-aldia, printzipioak, edukia, estruktura, prestaketa eta onespina.
- 80. gaia.** 21/2003 foru-araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko entitate lokalen aurrekontuei buruzkoa. Aurrekontuetako kredituen erregimen orokorra eta aldaketen erregimena.
- 81. gaia.** 21/2003 foru-araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako lurralde historikoko entitate lokalen aurrekontuei buruzkoa. Aurrekontuak gauzatzea, likidatzea eta luzatzea. Kontu-hartzailearen kontrola.
- 82. gaia.** 11/1989 foru-araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako ogasun lokalak arautzen dituen. Tributu propioak. Prezio publikoak. Diru-laguntzak. Zuzenbide pribatuko sarrerak.
- 83. gaia.** 15/1989 foru-araua, uztailaren 5koa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa, eta Lasarte-Oriako Udalaren 1. Ordenantza Fiskala, aipatutako zerga horri buruzkoa.
- 84. gaia.** 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena. Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena. Alderdiak. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea.
- 85. gaia.** 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena. Administrazioarekiko auzi-prozedura.
- 86. gaia.** 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena. Prozedura bereziak.
- 87. gaia.** 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak.
- 88. gaia.** 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Diru-laguntzak itzultzea. Diru-laguntzen kontrol finantzarioa.



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

- 89. gaia.** 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Diru-laguntzen inguruko arau-hauste eta santzio administratiboak.
- 90. gaia.** Diru-laguntzak emateko udal-ordenantza arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2017ko apirilaren 20ko 75. zenbakian argitaratua).